



**OIARTZUNGO OLALDE KALEAN DAUDEN LOKAL KOMERTZIALEN
ENKANTEA**

-BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO ZEHATZEN AGIRIA -

ESPEDIENTE KODEA:

2024ON190002

KARATULA

1.- XEDEA:

Oiartzungo Udalaren titulartasunekoak diren Olalde kaleko lokal komertzialak esleitzea eta besterentzea. Zehazki, Olalde kalea 3 zenbakian dauden 1 eta 2 zenbakidun lokalak, eta Olalde kalea 4 zenbakian dagoen 4 zenbakidun lokala, Oiartzungo HAPOk eta ALT-4 eremurako Plan Partzialak ekipamendu pribatura bideratua dituenak.

Enkantea hiru lotetan banatuko da, lokal bakoitzak lote bat osatuko duelarik:

- 1. Lotea: Olalde kalea 3 zenbakiko 1 zenbakidun lokala
- 2. Lotea: Olalde kalea 3 zenbakiko 2 zenbakidun lokala
- 3. Lotea: Olalde kalea 4 zenbakiko 4 zenbakidun lokala

Honakoa da lokal bakoitzaren erregistroko deskribapena:

Olalde kalea 3 zenbakiko 1 zenbakidun lokala:

HIRIKOA.- LAUROGEITA HEMEZORTZI ZENBAKIA.- BEHEKO SOLAIRUKO BAT ZENBAKIKO LOKAL LIBREA, OIARTZUNGO OLALDE KALEKO HIRU ZENBAKIKO ATARIARI dagokiona, plaza publikotik zuzeneko sarbidea duena.- Hirurogeita hiru metro eta berrogeita hamazortzi dezimetro karratu inguruko azalera erabilgarria du.- Mugak: iparraldean, plaza publikora ematen duen kanpoko fatxada; hegoaldean, bi zenbakiko lokal librea; ekialdean, lau zenbakiko atariaren eta bi zenbakiko lokal librearen arteko horma; eta mendebaldean, plaza publikora ematen duen kanpoko fatxada eta sotoko solairuetako eta hondakinak gordetzeko eremu komunitarioko larrialdi-irteerako fatxada. Kuota: Hiru zenbakiko atariaren azpikomunitateko elementu eta gastu komunetan ehuneko hiru osoko eta hogeita hamabost ehuneko partaidetza kuota esleitzen zaio. Eta ehuneko zero osoko eta hirurogeita zazpi ehunenekoa eraikuntza osoan.

Inskripzioa: 1260 liburukia; 296 liburua; 16 folioa; 19245 finka.

Olalde kalea 3 zenbakiko 2 zenbakidun lokala:

HIRIKOA.- LAUROGEITA HEMERETZI ZENBAKIA.- BEHEKO SOLAIRUKO BI ZENBAKIKO LOKAL LIBREA, OIARTZUNGO OLALDE KALEKO HIRU ZENBAKIKO ATARIARI dagokiona, Olalde kaletik zuzeneko sarbidea duena. - Hirurogei metro eta hogeita zortzi dezimetro karratu inguruko azalera erabilgarria du. Mugak: iparraldean,



bigarren zenbakiko lokal librea; hegoaldean, Olalde kalera ematen duen kanpoko fatxada; ekialdean, lau zenbakiko atariaren eta Olalde kalera ematen duen kanpoko fatxadaren arteko horma; eta mendebaldean, bat zenbakiko lokal librea, hondakinak gordetzeko eremu komunitarioa, hiru zenbakiko ataria eta Olalde kalearen kanpoko fatxada.- Kuota: Hiru zenbakiko atariaren azpikomunitateko elementu eta gastu komunetan ehuneko hiru osoko eta hamazazpi ehuneko partaidetza kuota esleitzen zaio. Eta ehuneko zero osoko eta hirurogeita hiru ehunenekoa eraikuntza osoan.

Inskripzioa: 1260 liburukia; 296 liburua; 21 folioa; 19246 finka.

Olalde kalea 4 zenbakiko 4 zenbakidun lokala:

HIRIKOA.- EHUN ETA HOGEITA HIRU ZENBAKIA.- BEHEKO SOLAIRUKO LAU ZENBAKIKO LOKAL LIBREA, OIARTZUNGO OLALDE KALEKO LAU ZENBAKIKO ATARIARI dagokiona, Olalde kaletik zuzeneko sarbidea duena. - Berrogeita sei metro eta berrogeita hamazazpi dezimetro karratu inguruko azalera erabilgarria du. - Mugak: iparraldean, hiru zenbakiko lokal librea eta hondakinak gordetzeko eremu komunitarioa; hegoaldean, hiru zenbakiko atariaren eta Olalde kalearen kanpoko fatxadaren arteko horma; ekialdean, hondakinak gordetzeko eremu komunitarioa, ataria eta Olalde kalearen kanpoko fatxada; eta mendebaldean, hiru zenbakiko lokal librea eta hiru zenbakiko atariaren horma. - Kuota: Lau zenbakiko atariaren azpikomunitateko elementu eta gastu komunetan ehuneko bi osoko eta hogeita bat ehuneko kuota esleitzen zaio. Eta ehuneko zero osoko eta berrogeita bederatzi ehunenekoa eraikuntza osoan.

Inskripzioa: 1260 liburukia; 296 liburua; 31 folioa; 19248 finka.

Datu horiek eta lokalak aztertu ondoren, Jose Luis Polo Francisco jaunak 2024ko abuztuaren 26an egindako balorazio txostenaren arabera, lokalen azalera honakoa da:

ZENBAKIA	LOKALA	ERREGISTROKO AZALERA ERABILGARRIA	EGIAZTATUTAKO AZALERA ERABILGARRIA*	ERAIKITAKO AZALERA*
OLALDE KALEA 3	1	63,58	68,07	75,22
	2	60,28	54,87	61,84
OLALDE KALEA 4	4	46,57	42,32	48,62

() 2020ko azaroaren 8ko txostenean Arq & Val-ek egiaztatua*

Edonola ere, lokalen kokapen zehatza agiri honen **III. Eranskinean** zehazten da, planoak **IV. Eranskinean** jasotzen dira, lokalen kanpoaldeko eta barrualdeko argazkiak **V. Eranskinean** eta erregistroko ohar soilak **VI. Eranskinean**.

2.- ESLEIPEN PROZEDURA:

Irekia eta enkante bidez.

3.- ESPEDIENTEA IZAPIDETZEKO ERA:

Ohiko izapidetza.

4.- BALIO ZENBATETSIA, LOKALEN BALIOA ETA PREZIOA:

Enkante honi dagokion balio zenbatetsia, guztira, 112.687,53 eurokoa da, hiru lotetan banatuta:

- 1. Lotea (Olalde kalea 3 zenbakiko 1 zenbakidun lokala): 47.887,40 euro
- 2. Lotea (Olalde kalea 3 zenbakiko 2 zenbakidun lokala): 39.087,30 euro
- 3. Lotea (Olalde kalea 4 zenbakiko 4 zenbakidun lokala): 25.712,83 euro

Kopuru horiek Jose Luis Polo Francisco jaunak 2024ko abuztuaren 26an egindako balorazio txostenaren arabera dira, zeinetan, eraikuntzaren birjarpen-kostu garbia eta lurzorua balioa kontuan hartuta, lokalen balioa ezarri zuen:

ZENBAKIA	LOKALA	LOKALAREN BIRJARPEN-KOSTU GARBIA	LOKALEN LURZORUAREN BALIOA	LOKALEN BALIOA
OLALDE KALEA 3	1	30.307,64	17.579,76	47.887,40
	2	24.916,57	14.170,73	39.087,30
OLALDE KALEA 4	4	19.589,97	6.122,86	25.712,83

Parte hartzaileek beren eskaintzetan ezarritako lokalaren balioa berdindu edo hobetu ahal izango dute, ezarritako kopuruetatik gorako eskaintzak eginez. Eskaintzaren bat ezarritako kopuruetatik beherakoa baldin bada, zuzenean baztertua izango da.

Prezioen gainean ez da BEZa aplikatu behar, baina erosleak eskualdaketatik dagokion inpostua ordaindu beharko dio Gipuzkoako Foru Aldundiari

5.- FINANTZAKETA:

Kontratu honek ez du Oiartzungo Udalarentzat gasturik aurreikusten, esleipendunek ez baitute Oiartzungo Udaletik kopururik jasoko.

6.- BERMEA:

200 eurokoa.

7.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA:

20 egun natural, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

8.- ENKANTEAREN PUBLIZITATEA:

Enkante honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, baita Oiartzungo Udalaren iragarki taulan eta kontratatzailearen profilean ere (www.oartzun.eus), Euskadiko Kontratazio-Plataforman dagoena.



9.- ALDAERAK:

Ez dira onartzen.

10.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK:

Lote guztietarako, eskaintza ekonomikoa.

Lokal bakoitzarentzat aurkeztutako eskaintza ekonomikoa baloratuko da. Parte hartzaileek ezarritako lokalaren balioa berdindu edo hobetu ahal izango dute, ezarritako kopuruetatik gorako eskaintzak eginez, eta eskaintza ekonomikorik altuena egiten duena izango da onena.

Eskaintzaren bat ezarritako kopuruetatik beherakoa baldin bada, zuzenean baztertua izango da.

I. KONTRATATZEKO PROZEDURA

1. ESLEIPENAREN PROZEDURA

Lokalen esleipena enkante bidez egingo da, prozedura irekia eta ohiko izapidetzea jarraituz.

Esleipena egiterakoan, karatularen 10. atalean zehaztutako irizpideak hartuko dira oinarritzat.

2. PARTE HARTZEKO GAITASUNA

1.- Enkante honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko eta juridikoek, baldin eta SPKLren 71. artikuluan zehaztutako kontratatzeke debekuen kasuren baten barnean ez baldin badaude.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo ahalorde askietsiaren bidez baimendutako ordezkarien bitartez aurkeztu ahal izango dute proposamena. Pertsona juridikoen ordezkariak, ordezkari izateko ahalmena dutela frogatu beharko dute agiri bidez. Kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak ordezkariari ere aplikatuko zaizkie.

Parte hartzaileek, halaber, ezingo dute ordaindu gabeko zorrik eduki Oiertzungo Udalean premiamendu bidean.

2.- Pertsona batek baino gehiagok batera egindako proposamenak aurkeztu daitezke, beti ere pertsona horiek Oiertzungo Udalarekiko solidarioki behartzen baldin badira agiri honetako baldintzei dagokienez, haren aurrean izan ditzaketen eskubideak eta betebeharrak zatiezintzat hartuta.

3.- Parte hartzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkez dezake lote bakoitzerako, bakarrik edo beste pertsona batzuekin batera. Hori bete ezean, ez da onartuko hark aurkeztutako proposamenik.

4.- Proposamena aurkeztearekin parte hartzaileak bete-betean eta oso-osorik onartzen ditu baldintza agiri honetako eta gainontzeko kontratu-dokumentuetako klausula guztiak, salbuespenik gabe, eta erantzukizunez aitortzen du zuzenak direla aurkeztu dituen datu guztiak eta betetzen dituela kontratatzeke ezarrita dauden betekizun guzti-guztiak.

3. BERMEA

Enkantean parte hartu ahal izateko, beharrezkoa izango da parte hartzaile bakoitzak 200 euroko bermea jartzea.

Berme hori proposamena aurkeztu aurretik jarri behar da, Oiertzungo Udalak Kutxabanken duen 2095 5060 11 1060024774 kontura banku-transferentzia eginez.

Pertsona batek baino gehiagok batera parte hartuz gero, proposamena sinatzen duen pertsona batek edo gehiagok eratu ahal izango dute bermea, baldin eta, orotara, ezarritako zenbatekora iristen badira.

Bermea esleipendun suertatzen ez diren parte hartzaileei itzuliko zaie esleipenaren ebazpena eman eta hurrengo hilabetearen barruan. Esleipendunak izaten direnei, aldiz, bermea atxikiko zaie.

4. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

1.- Kontratazio honen espedientea, eta horrekin batera doan dokumentazioa, Oartzungo Udalean (Done Eztebe plaza 1) aztertu ahal izango da, bulego ordutegian 8:00tatik 14:00ak arte egun baliodunetan, argitaratzen denetik eta proposamenak aurkezteko epea amaitu arte. Orobat, agiritara eta gainerako dokumentu osagarrietara jo daiteke kontratatzailearen profilaren bidez.

Epea: parte hartzaileek beraien proposamenak enkantearen iragarkia **Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik** kontatzen hasita **HOGEI (20) EGUN NATURALEKO** epean aurkeztu beharko dituzte.

2.- Proposamenak Oartzungo Udalaren sarrera erregistroan aurkeztu ahal izango dira aurrez aurre, bulego ordutegian 8:00tatik 14:00ak arte egun baliodunetan, baita elektronikoki ere, Oartzungo Udaleko egoitza elektronikoen bitartez ([Oartzungo Egoitza elektronikoa \(gipuzkoa.eus\)](http://Oartzungo.Egoitza_elektronikoa(gipuzkoa.eus))).

3.- Dokumentuak/edukiak izendatzeko unean kontuan hartuko dira hurrengo klausulan adierazitako argibideak, bertan adierazten baita artxibo bakoitzean jaso beharreko dokumentu-edukia, lote bakoitzarentzat.

4. BIS. PROPOSAMENEN EDUKIA

1.- Proposamenak jarraian adierazten diren **“A” eta “B” ARTXIBO ELEKTRONIKOETAN edo KARTAZALETAN aurkeztuko dituzte** parte hartzaileek edo parte hartzaileen ordezkari diharduten pertsonak lote bakoitzarentzat. Proposamenak aurrez aurre aurkeztekotan, kartazal itxi batean aurkeztu beharko dira.

2.- **“A” ARTXIBO ELEKTRONIKOAK EDO KARTAZALAK “OIARTZUNGO OLALDE KALEAN DAUDEN LOKAL KOMERTZIALEN ENKANTEA. GAITASUNAREN EGIAZTAGIRIAK”** titulua izango du, eta honako dokumentu hauek jasoko dira bertan:

- **Ardurapeko adierazpena**, agiri honen **I. Eranskin**eko ereduaren arabera.

Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak, edozein unetan, dokumentu bidezko

justifikazioa eskatu ahal izango dute parte hartzaileek, ardurapeko adierazpen bitartez, betetzen dituztela adierazitako baldintzei buruz. Parte hartzaileak behar besteko epea izango du dokumentazio eskatua aurkezteko, baina ezingo da 10 egun baliodunetik gorakoa izan, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Errekerimendua epe horretan behar bezala aurkeztu ezean, ulertuko da parte hartzaileak kendu egin duela bere proposamena.

* Pertsona batek baino gehiagok batera parte hartzen badute enkante honetan, pertsona horietako bakoitzak bere gaitasuna egiaztatuko du, ardurapeko adierazpena aurkeztuz, agiri honen I. Eranskineko ereduaren arabera.

Gainera, enkantetik sortutako betebeharrak betetzeko eta eskubideak gauzatzeko ahalorde askietsia izango duen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatzen duen notario ahalorde bat aurkeztu beharko dute. Bertan parte hartzaile guztiek Oiartzungo Udalaren aurrean duten erantzukizun solidarioa zehaztuko da, baita bakoitzak lokalaren jabetzan izango duen partaidetza kuota ere.

** Atzerriko parte hartzaileek gaitasuna egiaztatzeko adierazitako dokumentuak euskarara edo gaztelerara itzuliak aurkeztu beharko dituzte. Horrez gain, Espainiak dagokion estatuan duen Diplomaziako Ordezkaritza Iraunkorrean edo enpresaren egoitza dagoen lurralde eremuko Kontsuletzeko Bulegoaren txostena, zeinetan egiaztatuko den, bere legeriaren arabera, kontratatzeko eta behartzeko gaitasuna dutela.

Era berean, enkantetik etor litezkeen gorabehera guztietarako edozein eratako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren pean geratzen direla adierazten duen agiria aurkeztuko dute, eta uko egingo diote, hala behar badu, legokiekeen atzerriko jurisdikzio foruari.

- **Bermea** eratu denaren egiaztageria.

3.- “B” ARTXIBO ELEKTRONIKOAK EDO KARTAZALAK “OIARTZUNGO OLALDE KALEAN DAUDEN LOKAL KOMERTZIALEN ENKANTEA. PROPOSAMENA” titulua izango du, eta honako dokumentu hauek jasoko dira bertan:

- **Eskaintza ekonomikoa**, agiri honen **II. Eranskinean** jasotako ereduaren arabera, behar bezala beteta.

* *Proposamenen bat ez badator bat aztertzen eta onartzen den dokumentazioarekin, ezarritako lokalen balioa gainditzen badu, nabarmen ezberdina bada ereduaren aldean, ageriko akats bat badu zenbatekoari dagokionez edo bideraezin bihurtzen duen akats edo ahulguneren bat badu aurkeztzen duen parte hartzailearen esanetan, kontratazio mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu baten bidez. Ereduko hitz*



batzuk aldatzea edo ez jartzea, ordea, ez da izango nahikoa proposamenak baztertzeke, haien zentzua aldatzen ez bada betiere.

*** Ez da onartuko ereduaren arabera idatzi ez den eskaintza ekonomikorik, edo eskaintza kontuan hartzeko kontratazio mahaiak funtsezkotzat jotzen duena argi jakitea galarazten duen omisiorik, akatsik edo ezabaketarik daukanik.*

5. KONTRATAZIO MAHAIA ETA ENKANTEA

1.- Kontratazio organoak Oiartzungo Udalaren kontratazio mahai iraunkorraren laguntza izango du. Halaber, mahaiak hala eskatuz gero, Udaleko edozein teknikari bertaratu ahal izango da aholkularitza lanak egitera.

2.- Kontratazio mahaiak Oiartzungo Udaleko bulegoetan (Done Eztebe plaza 1) irekiko ditu “A” artxibo elektronikoak edo kartazalak, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetan.

Bai hasierako deialdi hori bai gerta litezkeen aldaketak Oiartzungo Udalaren iragarki taulan eta kontratatzailearen profilean argitaratuko dira (www.oiartzun.eus). Dena dela, jakinarazteko beste moduren bat ere jo liteke egokituz.

Egintza horretan, kontratazio mahaiak artxibo edo kartazal horretan aurkeztutako dokumentuak eta agiriak kalifikatuko ditu, ekitaldi pribatuan.

Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak hala eskatuta, parte hartzaileek ardurapeko adierazpena zuzendu beharko dute, zuzentzeko moduko akatsen bat antzemanaz gero. Halako kasuetan, eragindako parte hartzaileari 3 eguneko epea emango zaio, zuzentzeko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Ez baldin bada epe horretan eskatutakoa zuzentzen, kontratazio organoak edo mahaiak ulertuko du parte hartzaileak atzera egin duela bere eskaintzan. Dena den, aurkeztutako agiriak funtsezko akatsak edo zuzendu ezinako akats materialak edukiko balituzte, proposamena baztertu egingo da.

3.- Kontratazio organoak garaiz argitaratuko du Oiartzungo Udalaren iragarki taulan eta kontratatzailearen profilean, www.oiartzun.eus helbidean, noiz izango den “B” artxibo elektronikoak irekitzeko egintza.

Egintza horretan adieraziko du kontratazio mahaiak zein proposamen onartu diren, zein baztertu diren eta zergatik, eta onartutako eskaintzekin enkanteari hasiera emango dio.

Lote bakoitzari dagozkion “B” artxibo elektronikoetan edo kartazaleetan jasotako proposamenak irekiko ditu. Ezarritako lokalen balioak hobetzen dituzten proposamenak onartuko ditu, kopuru horietatik beherakoak direnak zuzenean baztertuz, eta eskaintako prezioaren arabera hurrenkera osatuko du, altuenetik baxuenera.

Bukatzeko, lote bakoitzerako eskaintzarik onena egin duen parte hartzailearen aldeko, hau da, preziorik altuena eskaintzen duenaren aldeko esleipen proposamena egingo dio mahaiak kontratazio organoari.

6. LOTE BAKOITZAREN ESLEIPENA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA

1.- Eskaintzen sailkapena eta esleipen proposamena

Kontratazio mahaiak kontratazio organoari bidaliko dio, aktarekin batera, lote bakoitzari dagokion esleipen proposamena. Hartan beheranzko hurrenkeran antolatuak agertuko dira eskaintzak, preziorik altueneko eskaintza bereizita.

Esleipen proposamen horiek ez du administrazioarekiko eskubiderik sortuko proposatutako esleipendunaren alde.

2.- Eskaintzarik onena aurkeztu duen parte hartzaileak aurretiazko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioaren aurkezpena.

Esleipen proposamena erabaki ondoren, errekerimendua egingo zaio lote bakoitzean eskaintzarik onena aurkeztu duen parte hartzaileari, zeina lehena izango den sailkapen hurrenkeran, 10 egun baliioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatuta, ondorengo dokumentazioa aurkez dezan:

a) Parte hartzailearen nortasuna egiaztatzeko dokumentuak:

- Parte hartzailea pertsona juridikoa bada, nortasuna osaera, edo hala badagokio, aldaketa eskritura bidez egiaztatuko da, baldintza hori eskatzen den kasuetan. Bestela, osaera dokumentua, estatutuak edo sortze ekintza aurkeztu beharko du jarduera arautzen duten arauak jasota, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatua, hala behar izanez gero.
- Parte hartzailea pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionala edo baliokide den dokumentuaren bitartez.

b) Proposamenaren sinatzailearen ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa (pertsona horrek beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten duenean).

c) Zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzen dituela egiaztatzen duten justifikazio dokumentuak.

Errekerimendua adierazitako epean behar bezala bete ezean, ulertuko da parte hartzaileak kendu egin duela bere eskaintza; kasu horretan, eraturako bermea galduko du eta dokumentazio bera eskatuko zaio eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren arabera hurrengo parte hartzaileari.



3.- Esleipena

Aipatutako dokumentazioa aurkeztuta, kontratazio organoak dokumentazioa jaso ondorengo 5 egun baliodunetan esleituko du lote bakoitzari dagokion kontratua.

Esleipenak arrazoitua izan behar du, parte hartzaile guztiei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, Oiartzungo Udalaren iragarki taulan eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da (www.oiartzun.eus).

7. LOTE BAKOITZAREN BESTERENTZEAREN FORMALIZAZIOA

1.- Lokalen besterentzea eskritura publikoan formalizatuko da Oiartzungo Udalarekin, lote bakoitzaren esleipenaren ebazpena jakinarazi eta hurrengo 2 hilabeteko epean. Horrekin batera, esleipendunak lokalaren prezioaren ordainketa osatu beharko du. Halaber, eskritura publikoa egiletsi ondoren, esleipendunak dagokion inpostua ordaindu beharko du Gipuzkoako Foru Ogasunean, Erregistroan inskribatu beharko du, eta titularra aldatu beharko du Katastroan.

Salbuespenez, kontratazio organoak adierazitako epea luzatu ahal izango du modu arrazoituan.

2.- Esleipendunak lokala eskuratzeari uko egiten badio edo dagozkion betebeharrak betetzen ez baditu, edo berari egotz dakioken edozein arrazoirengatik besterentzea formalizatzen ez bada, eraturako bermea galduko du, sortutako galeren kalte-ordainari kalterik egin gabe.

8. GASTUAK ETA ZERGAK

Besterentze honen ondorioz sortzen diren gastu eta zerga guztiak esleipendunak ordainduko ditu, salmenta formalizatzeko beharrezkoak direnak barne.

Hala badagokio, esleipendunaren kontura izango dira, baita ere, besterentze hau dela eta argitaratu diren eta doakoak ez diren iragarkiek eragindako gastuak.

Saltzaileak beretzat gordetzen du jabetzaren eskualdaketa gertatzen den ekitaldiari dagokion Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) erosleari jasanarazteko eskubidea, alderdi bakoitzak lokalaren jabari-titulartasuna izan duen denboraren proportzioan.

IV. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

9. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

1.- Baldintza agiri honen arabera egingo diren kontratuek izaera pribatua izango dute. Hala ere, kontratuen prestaketari eta esleipenari buruzko erabakiak egintza juridiko banangarriak dira eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean aurkaratuak izan daitezke.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, honako hauek izango dira kontratuen prestaketa eta esleipena arautuko dutenak:

- Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiri hau eta honi atxikitako gainerako agiriak.
- Enkantea eta kontratua egiten diren bitartean, eta bi horiek garatzen diren bitartean indarrean dauden Toki Araubideko nahiz Administrazio Publikoetako Kontratueta legezko eta arauzko xedapenetan jasotako kontratazio-arauak.
Bereziki, honako arauak aplikatuko dira: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bateratua onesten duena; Toki Erakundeen Ondasunei buruzko legeri espezifikoak (Toki Erakundeen Ondasunen araudia onartzen duen, ekainaren 13ko, 1372/1986 Errege Dekretua); Administrazio Publikoen Ondarea arautzen duen legeria, azaroaren 3ko 33/2003 Legea, Administrazio Publikoen Ondarearen buruzkoa, Toki Erakundeei aplikagarri den guztian, eta Lege horren Erregelamendu Orokorra onartzen duen abuztuaren 28ko 1373/2009 Errege Dekretua; Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea (SPKL), eta arauzko xedapen gisa 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen, urriaren 30eko, 30/2007 Legea partzialki garatzen duena, eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onesten duena, aurrekoekiko kontraesanean ez dagoen guztian indarrean dagoena (HAKLEO).
- Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak eta, horiek ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

2.- Kontratuen ondorioei, aldaketari eta iraungitzeari dagokienez, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

3.- Agiri hau euskaraz idatzia izan da eta gaztelaniara itzulia. Ondorioz, bi bertsioen artean desadostasunik badago, euskarazkoa lehenetsiko da.

10. ERREKURTSOEN ARAUBIDEA

1.- Kontratuaren prestaketari eta esleipenari lotutako edozein arazori dagokionez, bide administratiboan jarri ahal izango da errekurtsua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera. Era berean, kontratua, prestakuntza eta esleipenari dagokionez, epaitegi kontentzioso-administratiboari



dagokio.

2.- Ondorioei eta iraungitzeari dagokionez, berriz, aplikagarriak diren zuzenbide pribatuko arauen bidez erregulatuko da kontratua, eta epaitegi zibila izango da eskuduna.

11. KOMUNIKABIDEAK

Jakinazpenak eta komunikazioak ardurapeko adierazpenean ondorio horietarako ezarri den pertsonari zuzenduko zaizkio, eta jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, ohar bat bidaliko da ardurapeko adierazpenean zehaztutako helbide elektronikora.

Proposamenak elektronikoki aurkezten diren kasuetan, edota parte hartzaileek proposamena aurrez aurre aurkeztuta ere hala adierazten dutenean, SPKLren 140.1.a).4. artikuluan eta 15. xedapen gehigarrian xedaturikoaren arabera, kontratazio prozeduran egin behar diren komunikazioak eta jakinarazpenak baliabide elektronikoen bidez egingo dira.

Bitarteko elektronikoko bidezko jakinarazpena errefusatua izan dela ulertuko da, jakinarazpena eskuratzeko moduan jarri eta 10 egun natural igaro direnean horren edukira sartu gabe.

Oiartzunen, sinaduraren egunean

I. ERANSKINA
ARDURAPEKO ADIERAZPENA

“.....jaunak/andreak, NA.....
zenbakia duenak, helbidea, telefono zk.
..... (fax zk.:; posta elektronikoa:),
gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean
(edo.....-(r)en izenean, IFK/NA....., hiria
....., helbidea:....., etab.),
**OIARTZUNGO OLALDE KALEAN DAUDEN LOKAL KOMERTZIALEN
ENKANTEA** arautuko duten baldintza agiriak eta gainerako baldintzak ezagututa,

BERE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DU:

I.- Parte hartzaileak badauzkala enkantearen xedea betetzeko beharrezko diren gaitasunak eta baliabideak.

II.- Sinatzaileak proposamena aurkezten duenaren izenean jarduten duela, eta sinatzailea eta ordeztutakoa ez daudela sartuta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikulua aipatzen dituen bateraezintasun eta debeku egoera bakar batean ere.

III.- Zerga eta Gizarte Segurantzaren obligazioak betetzen dituela eta konpromezua hartzen duela hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko, horrela eskatzen bazaio.

IV.- Ez duela ordaindu gabeko zorrik Oiartzungo Udalean premiamendu bidean.

V.- Oiartzungo Udalari baimena ematen diola behar diren artxiboetan kontsulta egiteko, egoki deritzon edozein Organismoren edo Administrazioen zerrendetan, adierazpen honetako edukia egiazta dezan.

VI.- Atzerriko parte hartzaileen kasuan, kontratutik zuzenean edo zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako, Espainiako edozein ordenatuko epaitegi eta auzitegi-tako jurisdikzioaren pean jartzen dela, eta bere kasuan, egoki lekiokkeen atzerriko foru jurisdikzionalari uko eginda.

VII.- Honako hau dela jakinarazpenak eta komunikazioak bidali izanaren oharrak bidaltzeko posta elektronikoen helbidea:

** Kontuan izan, SPKLren 140.1.a).4º artikulua araberak, jakinarazpenak egiteko posta elektronikoen helbideak “gaitua” izan behar du, SPKLren Hamabostgarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera, baldin eta kontratazio-organismoak jakinarazpenak bitarteko horren bidez egitea erabaki badu.*

EMAIL:
---------------	-------

DATUAK KONTSULTATZEKO BAIMENA (*)

Esleipendun gisa proposatua izatekotan, Oiartzungo Udalari BAIMENA EMATEN DIO zergetako (Foru Ogasunari) eta Gizarte Segurantzari dagozkion obligazioak betetzen dituen kontsulta dezan eta helburu horretarako beharrezko informazioa lor dezan. Kasu honetan ez da beharrezkoa izango dokumentalki egiaztatzea.

(*) *Inolako aukerarik ez markatzekotan, ulertuko da datuen kontsulta EZ dela baimentzen.*

- Bai**
- Ez**

SINATZEKO LEGE-GAITASUNA

Dokumentu hau sinatzeko lege-gaitasuna dudala aitortzen dut.

IZEN-ABIZENAK		SINADURA
N.A.N	DATA	

Oiartzungo Udalak administrazio lizentzien, udal baimenen eta emakiden, eta udal ondasun publikoen kudeaketari lotutako datuak tratatzen ditu, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak eta Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 2568/1986 Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat etorrira.

Datu pertsonalak gaian eskumena duten organo judizialei eta auzitegiei eta administrazio publikoei komunikatu ahal izango zaizkie. Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, haien trataera mugatu edo horren aurka egin dezake, baita informazioa zabaldu ere, komunikazio bat igorrita, Udalaren helbidera edo dbo-dpd@oiartzun.eus posta elektronikora. Halaber, eskubidea du Datuak Babesteko Politikei buruzko informazio gehiago www.oiartzun.eus webgunean eskuratzeko.

.....en, 2024koan

Sinadura. PARTE HARTZAILEA.”

II. ERANSKINA
PROPOSAMEN EREDUA

“.....jaunak/andreak, NA.....
zenbakia duenak, helbidea, telefono zk.
..... (fax zk.:; posta elektronikoa:),
gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean
(edo.....-(r)en izenean, IFK/NA....., hiria
....., helbidea:....., etab.),
**OIARTZUNGO OLALDE KALEAN DAUDEN LOKAL KOMERTZIALEN
ENKANTEA** arautuko duten baldintza agiriak eta gainerako baldintzak ezagututa,

ADIERAZTEN DU:

I.- Ezagutzen dituela Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiria eta kontratua arautuko duen gainerako dokumentazioa, eta berariaz bere osotasunean onartzen dituela inolako salbuespenik gabe beteko dituelarik.

II.- Parte hartzaileak kontratua burutzeko indarrean dagoen araudiak eta kontratua araupetzen duen baldintza agiriak eskatutako betebeharrak eta baldintza guztiak betetzen dituela. Horri lotuta, baldintza horiek egiaztatzeko konpromisoa hartzen du eskatzen zaion dokumentazioa aurkeztuz, esleipenduntzat proposatua den kasuan.

III.- Esleipenduna gertatuz gero, baldintza agirian zehazten diren baldintzak eta espedientean zehaztutako gainerako aukerako baldintzak beteko dituela beti.

IV.- Esandako guztiaren arabera, enkante honen lotean parte hartu nahi duela, hau da, Olalde kaleko zenbakiko zenbakidun lokalari dagokionean.

V.- Horretarako, euroko eskaintza ekonomikoa egiten duela.

.....en, 2024koan

Sinadura. PARTE HARTZAILEA.”


III. ERANSKINA

LOKALEN KOKAPEN ZEHATZA




IV. ERANSKINA
LOKALEN PLANOAK


Olalde kalea 3 zenbakiko 1 zenbakidun lokala:



Olalde kalea 3 zenbakiko 2 zenbakidun lokala:



Olalde kalea 4 zenbakiko 4 zenbakidun lokala:



V. ERANSKINA
LOKALEN ARGAZKIAK

Barrualdeko plaza:



Olalde kalera ematen duen lokalen fatxada:



Olalde kalea 3 zenbakiko 1 zenbakidun lokala:



Olalde kalea 3 zenbakiko 2 zenbakidun lokala:



Olalde kalea 4 zenbakiko 4 zenbakidun lokala:



